

## Ezjabetza espedienteengatik eragindako laborantza tresneriko txabolak berreraikitzeke udal ordenantza

Bermeoko udalak, 2012ko irailaren 6an izandako Udal Osoko Batzarrean, ez-jabetza espedienteengatik eragindako txabolak berreraikitzeke Udal ordenantza behinik behin onartu zuen, eta 30 eguneko epean jendaurrean egon denez ordenantza bera behin betiko onartuta geratu da ondoren xedatzen den moduan:

Ezjabetza espedienteengatik eragindako laborantza tresneriko txabolak berreraikitzeke udal ordenantza

Lehenengoa

Laborantza tresneriak gordetzeko direla behar moduan identifikatzeko ezaugarriak dituzten txabolak baino, ezin ezingo dira berreraiki. Ezin izango dira inola ere berreraiki jatorrizko gailurreraino ailegatzan ez diren ormen hondarrak, eta orokorrean ezin dira berreraiki jatorrizko eraikinaren planta nahiz bolumen originalak zehazteko erabili ezin daitezkeen gainontzeko hondar guztiak.

Bigarrena

Hala ere, urbanizagarria ez den lurzoruan Sistema Orokorreko horniketak ezartzeko zioak direla eta, derrigorrezko ez-jabetze prozeduraren ondorioz eraitsi edo lurrera bota diren txabolak berreraikitzeke baimena eman daiteke. Berreraikitze baimena udal administrazioaren aurrean eskatu beharko du interesdunak txabola erabilteza geratu zen momentutik, urte bateko epearen barruan, eta edozein kasutan ez-jabetza zioaren okupazioa bete zenetik, Azken kasu honetan babes berezia ez duen lurzoru urbaniza-ezinenaren gainean eraiki ahal izango da.

Hirugarrena

Edozein kasutan ere altxatzen den eraikin berriak, gehienez, jatorrizko eraikinaren bolumen neurriak gorde beharko ditu. Bolumen neurri horiek eraikina eta partzela identifikatu eta azalera zehaztu, behar moduan islatzen duen dokumentazio grafikoaren bitartez erakutsi beharko da.

Laugarrena

Txabolak berreraikitzeke baimen lizentziak emateko ondokoa eskatuko da:

- a) Proiektua jendaurrean ezarriko da gutxienez hogeitun eguneko epean.
- b) Ez-jabetze prozeduraren ondoriozko okupazioen kasuetan, prozeduran parte hartu duten erakunde zein instituzioen txostena, edo berreraiketa ahalbideratzen dituzten gorabeherak ezagutzen dituzten erakunde edo instituzioen txostenak eskatuko dira, eta horiek guztiak Urdaibai Biosfera Erreserbako Zaingo Batzordeari igorriko zaizkio, azpiegitura berria bere babes esparru barruan egonez gero, behar moduko txostena egin dezan.

Bosgarrena

Ezin da inola ere txabola erabilerarako egokitze edo berregite obratzat jo legearen arabera eta lurzoru urbaniza-ezinean erabilera horretarako ez ziren bestelako eraikinetan burutu nahi diren lanak. Lan horiek guztiak eraikin berriko obratzat joko dira eta horientzako ezarritako erregimenaren arabera jardungo da.

Seigarrena

Ez-jabetze unean dagoen edo zegoen txabolaren azalera metro koadroko argazkien bitartez ezin denean erakutsi, eraiki daitezkeen txabola berriaren gehieneko azalera ordenantza zaharrak xedatutako bera izango da; hots ez-jabetutako partzelaren azalera



baliokideari lotutako lurzoru azalera eraikita 2 x 2,5 (5 m<sup>2</sup>) izango da. Kasu honetan fatxadetako baoak gehienez bi izango dira (bata sarrerako aterako, bestea leiho baterako).

#### Zazpigarrena

Eraikin berriak eraikina bera eusteko egitura eta teila gorriz amaituta egurrezko teilatu egitura ere izango du. Ezin dira txertatu etxebizitzetako bestelako elementuak (tximiniak, antenak, isolamenduko elementuak eta abar.

#### Zortzigarrena

Ordenantza honek oraintxe dauden eraikinak, legepekoak nahiz preskribatuak arautzen ditu, eta ordenantza honen erregimenetik kanpo gertatzen dira hirigintza egoera irregularretan daudenak.

Bermeon, 2013ko urtarrilaren 4an.-Alkatea, Idurre Bideguren Gabantxo

